



(https://www8.smartadserver.com/click?imgid=23591600&insid=8618300&pgid=1024031&ckid=8688979225347941898&uii=232037196475896892&acd=1553583775035&pubid=10&tmstp=6076215068&tgt=%24dt%3d1t%3b%212%2f&go=http%3a%2f%2fmaitadezagunondo.eus)

'Tupust!' komiki antologia feminista aurkeztu dute

(https://www8.smartadserver.com/click?imgid=23591600&insid=8618300&pgid=1024031&ckid=8688979225347941898&uii=232037196475896892&acd=1553583775035&pubid=10&tmstp=6076215068&tgt=%24dt%3d1t%3b%212%2f&go=http%3a%2f%2fmaitadezagunondo.eus)



Maitane Gartzandia, Loinaz Lekuona, Maite Gurrutxaga eta Ainara Azpiazu 'Tupust!' komiki antologiaren aurkezpena. Irati Salsamendi

Donostia

Kultura (https://irutxulo.hitza.eus/gaiak/kultura/)

2019 (https://irutxulo.hitza.eus/2019/03 (https://irutxulo.hitza.eus/2019/03/25 (https://irutxulo.hitza.eus/2019/03/25)

Irati Salsamendi (https://irutxulo.hitza.eus/sinadurak/irati-salsamendi/)

2016an hasi ziren *Tupust!* komiki antologiaren lehen osagaiak koinatzen, eta azkenik, atera dute labetik komiki bilduma. Komikigunean aurkeztu dituzte gaur goizean argitalpena eta lanaren atzean dagoen kolektiboa; ikusgai jarri dute ere komikigileen lanekin osatutako erakusketa, eta hilaren 29ra arte egongo da ikusgai. Antologia hamalau istoriok osatzen dute, horien atzean hogeita hamar artista dauden arren, ilustratzaileak zein gidoilariak. Horieta lau egon dira gaurko aurkezpenean: Maitane Gartzandia, Loinaz Lekuona, Ainara Azpiazu *Axpi* eta Maite Gurrutxaga. Txalaparta argitaletxeak argitaratu du lana, eta aurkezpenean egon da ere Garazi Arrula, argitaletxearen ordezkaririk gisa.

Ni-a da argitalpenaren gaia, hortaz hamalau istorioen bitartez "ni-a modu kolektiboan irudikatu dute", Arrularen ustez. Lan kolektiboa da *Tupust!* baina Gurrutxagak esplikatu du artista bakoitzak "era librean" aukeratu duela bere sorkuntza nola egin. Ilustratzaile batzuk bakarrik aritu dira eta beste batzuk, idazle edo gidoilari batekin batera egin dute bere lana. Istorio batzuk mutuak dira, eta beste batzuk testuaren laguntza dute; azken horien kasuan, sorkuntzarako erabili duten hizkuntza euskara izan dela kontatu dute. Gainera, biñeta guztiak bi kolorez eginda daudela azaldu dute: teila kolorea eta berdea.

Era berean, komikigintza lan konplexua dela nabarmendu du, eta argitalpenaren detaileei erreparatuta atzean pertsona askoren lana dagoela azaldu du Gurrutxagak: diseinatzaileak, maketatzaileak, eta abar. "Lan grafikoak ez dira idatziak bezala, kontu eta erabaki asko dituzte atzetik; horregatik dira batzuetan horren konplexuak", gaineratu du *Axpi*.

Orain arte euskal komikigintza "oso maskulinizatu" egon dela kritikatu du Lekuonak, eta proiektua komikigintzan eta ilustrazioan dabilzan hainbat emakume "saretzeko" helburuarekin sortu dela gehitu du Gartzandiak. "Kalitatezko sorkuntza profesionalak egiten ditugula aldarrikatu nahi dugu", adierazi du Lekuonak. Estilo aldetik lan berezia da bere ustez, baina eduki aldetik ere desberdina dela esan du. Esaterako, gizon zuri heterosexual mendebaldarraren eruditik kanpo dauden subjektu horiek irudikatzen dituzten helburuetako bat du proiektuak, orain arteko komikigintzan gutxitan egin dena, hain zuzen.

Tupust! kolektiboa duela hiru urte hasi zuen bere ibilbidea, eta gaur aurkeztu duten argitalpena bide luze baten hasiera besterik ez dela jakinarazi dute, izan ere, sorkuntza lanak egiteaz gain, beste hainbat jarduerak egiteko asmoa dute (hitzaaldiak, erakusketak, ikastaroak, eta abar). "Gelditzezko etorri gara", aitortu du irmo Lekuonak.

IRUTXULOKO HITZAK *Tupust!* kolektiboko hainbat sortzaileekin hitz egin du proiektua ezagutzeko. Ostiraleko astekarian egongo da irakurgai erreportaje osoa.

0 Comentarios

Irutxuloko Hitza

Acceder

Recomendar

Tweet

Compartir

Ordenar por los mejores



Sé el primero en comentar...

INICIAR SESIÓN CON

REGISTRARSE CON DISQUS

Webgune honek cookie-ak erabiltzen ditu zure nabigazioa errazteko, publizitatea erakusteko eta analisi estatistikoak egiteko.

Informazio gehiago nahi baduzu, kontsultatu hemen (https://irutxulo.hitza.eus/cookieak/).